

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

Euskararen aldeko borroka politikoa zela ohartu zen gazterik Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik, eta bi ildo horiei, borroka bakar horri lotu zitzaion, gaurdaino. Euskararen aldeko borroka politikoari bizi osoa eskaini dio Txillardegik.

Eskertzeko eta bere ibilbidea omentzeko garaia ikusi dute askok. Bi libururekin iritsiko da bere omenaldira Txillardegik: *Santa Klara gure uharte ezezaguna* eta *Euskararen aldeko borrokan*, datorren asteetan kaleratuko direnak. Bigarren liburua izenburuaren haritik eta intelektuala-ren 75. urtebetetzearekin lotuz, Txillardegik, 75 urte euskararen aldeko borrokan jardunaldiak ospatuko dira datorren irailaren 7tik 9ra, Elkar argitaletxeak antolatutik. «Gisakoa da hainbeste merezimendu pilatu duenari bizi den artean adieraztea gure omena eta esker ona», azaldu du Xabier Mendiguren Elizegi Elkarreko editoreak.


Idazle, pentsalari, hizkuntzalari eta ekintzailea izan da eta da Txillardegik, baina oroz gain, intelektual konprometitua. 1947an sartu zen politikan, EAJ-rekin loturik egin zuen bere lehen «ekintza»: «17 urte nituen artean eta paper batzuk eman zizkidaten PNVkoek, etxeetako ate-azpietatik sartzeko eskaerarekin. Eta beldurrez kikilduta halaxe egin nuen Parte Zaharrean», kontatu zion Joxean Agirre kazetariari *Hitza hitz, Txillardegirekin solasean* libururako.

«Beharbada garai hartako abertzaleek hizkuntzari inolako garrantzirik ematen ez ziotelako» sortu zitzaion intelektualari euskararekiko ardura. Izatez ez baitzen euskalduna, gaztelaniaz egiten zuten etxean, nahiz eta amak euskara jakin. Oñatikoa zen jatorriz amaren familia, eta madrildarra aitarena.

Abertzale eta ezkerreko intelektualak haurtzarotik bizi izan zuen Antigua auzoan klase arteko borroka. «*Ricos contra pobres*» egiten zuten borroka 6-7 urterekin; aberatsen bandoan zegoen orduko hartan Txillardegik.

### Euskara batu nahian

Politikan sartu zen urte hartan bertan, 1947an, egin zuen bere «gramatika partikularra», gaixo, pulmoniarekin ohean zetzala. Gerora buru-belarri murgildu zen hizkuntzalaritzan. Euskal azentuaz egin zuen tesia, baina Federico Krutwigekin batera euskara batuaren alde egindako borroka izan zen emankorrena. Hizkuntzalari estimatua eta



OMENALDIA jasoko du Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik irailean Donostian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

# INTELEKTUAL MILITANTEA

EUSKARAREN ETA ABERRIAREN ALDE BORROKATU DA BIZI OSOAN  
JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI'. EKINTZAILEA, LITERATOA,  
PENTSALARIA ETA HIZKUNTZALARIA DA

errespetatua den arren ez da sekula euskaltzain oso izatera iritsi: «Euskaltzain batzuek ez dinate barkatu nire militantzia politikoa. Ni ETAn eta HBn izan ez banintz bestela izango zen», dio Agirrerren liburuan.

EKINen eta gero ETaren sortzaileetako bat izan zen. Txillar-

degik idatzi zion 1959ko uztailaren 31n ETaren sorreraren berri emanez Jaurilaritzari gutuna. Militantziak kartzela eta erbeste ekarri zizkion, besteak beste. ETatik irtenda Euskal Herrian Euskaraz sortuz jarraitu zuen euskararen aldeko militantzian.

Erbeste garaian atzerrian zela

30 etxetan baino gehiagotan bizi beharrean gertatu zen. Haietako askotan Jone Forcada emaztea eta Joseba, Jon, Maddi eta Mikel seme-alabak izan zituen lagun, baina ez guztietan. Etxe haietan guztietan lagun, pianoa izan zuen beti. Umetan amak irakatsita hasi zen pianoa jotzen, eta ka-

### Egitaraua

#### Irailak 3, ostirala.

12:00: Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik'-ren 'Euskararen aldeko borrokan' liburuaren eta hurrengo asteko hitzaldien aurkezpena, Xabier Mendiguren Elizegik aurkeztua.

#### Irailak 7, asteartea.

19:30: Markos Zapiainek 'Literatura eta pentsamenduzko ibilbidea' hitzaldia eskainiko du, Koldo Izagirrek aurkezturik.

#### Irailak 8, asteazkena.

19:30: Emilio Lopez Adan 'Beltza'-k 'Politikazko ibilbidea' hitzaldia emango du, Ramon Labaienek aurkezturik.

#### Irailak 9, osteguna.

19:30: Joan Mari Torrealdai aurkezturik 'Hizkuntza gaietako ibilbidea' hitzaldia egingo du Pilartxo Etxeberriak.

Ekitaldi guztiak Donostiako Udal Liburutegiko sotoan (San Jeronimo kalean) izango dira.

rrera egin ez zuen arren «askok bezain ongi» jotzera iritsi zen Txillardegik, bere burua «bakarti eta uzkur samarra» definitzen duen gizona. «Ideietan gogorra, baina erabat biguna izaeraz».

Euskal literaturaren historian ere izen berezia da Txillardegirena. Berea da *Leturiaren egunkari ezkutua*, euskal nobelagintzan aro berria zabaldu zuen liburua. 1967an soldaduska egiten ari zela idatzi zuen lanak pertsonaia-nobelari hasiera eman zion, aurreko folklorismotik urrun. Jean Paul Sartreren *Goragalea*-ren antza suma daiteke bertan. Izan ere, Sartre existentsialista izan zen, Bertrand Russell «filosofo, matematikari eta bekearen aldeko borrokalariarekin batera», bere «pentsamolde politikoa» markatu zuena.

Bere egitekoen artean «gauza marjinal gisa» hartu izan du literatura. Baina eskaini dio denborarik. 1959an *Peru Leartzako* idatzi zuen eta 1967an *Elsa Schelen*, Belgikan. Azken hori, Nietzscheren *Zarathustra*-n inspiraturikoa, «parida handi bat» da egilearen arabera, baina aldi berean «nire nobelarik sakonena eta sinbolistena». 1988an *Exkixu* «nobela barojanoa» argitaratu zuen, «ETAko militante baten bizitza arketipikoaz». Oraingoz kaleratu duen azken nobela *Putzu* da, 1999koa.

75 urte egitear delarik —irailaren 27an egingo ditu—, lanean dihardu. Aralarren eskutik politikan, eta aurki plazaratuko diren *Santa Klara gure uharte ezezaguna* eta *Euskararen aldeko borrokan* obretan sorkuntzan.